


KANALAK

Gure zerbitzua aurrera atera dadin ahalik eta pertsona kopuru handienera iristea beharrezkoa dela iruditzen zaigu, bestela ez genukeelako arrakastarik lortuko. Arrakasta hau lortzeko hainbat baliabide jorratu behar dira: kanalak.

Arazo honi, hau da, hondartzen kutsadura eta hondakinen kopuru erraldoiari aurre egiteko, proiektua ezagutzera emateko publizitatea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Hortaz, sare sozialak erabiliko ditugu, azken urteetan eragin handia izan dituztelako pertsonengan, eta horietaz baliatuko gara gure bezeroa geureganatzeko. Twitter-en, Instagram-en eta Facebook-en kontu bat sortuko dugu. Gure hiru sare sozialen kontuak, **@hondargarbi** izena izango dute, eta bertan gure egitasmo oro adieraziko dugu. Hala ere, jende gehiagora iristeko, Donostiako Udalaren sare sozialetan iragartzea ere erabaki dugu. Instagram-en, [@donostia_udala](#) eta Facebook-en berriz [@DonostiaSanSebastian](#).



Gainera, webgune bat eskainiko diegu bezeroei: **“zaindugurehondartzak.eus”**. Bertan, gure egitasmoaren inguruko informazioa egongo da: hondartzaren garbiketa nola antolatuko dugun, zeintzuk garen, gure telefono zenbakia... egongo dira. Honez gain, gure proiektuan parte hartzeko, izena eman ahal izango dute eta edozein zalantza galdetzeko aukera ere edukiko dute.

Bestalde, hitzaldi bat emango dugu Gipuzkoako Plazan gure proiektua bezeroei zabaltzeko modu eraginkor bat delako. Hasiera batean, hitzaldi hau euskaraz eta gaztelaniaz izango da. Bertan gure proiektuaren helburua eta ezaugarri nagusiak azalduko ditugu, horrela bezeroekin pertsonalki egoteko aukera izango dugu, bukaeran galderaren bat edo dudaren bat badute bertan erantzungo dizkiegu. Hala ere, norbaitek beste galderaren bat badu edo hitzaldira joateko aukerarik izango ez balu, gure webgunetik edo sare sozialetik egiteko aukera ere badago. Hitzaldia, gainera, grabatzea gustatuko litzaiguke eta hau YouTube-n zintzilikatu.

Hitzaldia emateaz gain, herritarrek gure egitasmoaz ez ahazteko Donostian zehar publizitate kartelak jarriko ditugu puntu turistikoenetako hainbat gunetan. Horrela, jendearen arreta erakarriko dugu eta hainbat herritar egitasmoan parte hartzeko prest gero, bertan ikusitako informazioarekin webgunera joko dute eta izena emateko aukera edukiko dute. Kartelen ekoizpenerako **“Maddon”** publizitate enpresa donostiarraren zerbitzuak kontratatuko ditugu

Aurretik aipatu izan dugun moduan, hondartza bakoitzean hondakin ontzi bana jarriko dugu, bildutako hondakin guztiak birziklatzeko aukera izateko. Hauek noski ezin dira bertan gelditu hondakin ontzi arrunt bat bezala. Beraz, hemen banaketa kanalaren erabileraz baliatu beharko ginateke. Hondakin hauek larunbat, igande eta astelehenetan, asteburu osoan bildutako hondakinak bota eta gero San Marko Mankomunitatearen laguntzaz kamioien bidez birziklutzerara eramango ditugu.

Azkenik, jende gehiago erakartzeko asmoz, udalak Donostiako komunikabideetan gure egitasmoaren publizitatea egitea garrantzitsua iruditzen zaigu, eta aproposa eta oso lagungarria irudituko litzaiguke "**Teledonosti**" katean iragarki batzuk emititzeko aukera ematea.

Gure egitasmoan ez denez produkturik saltzen, ez dugu salmenta kanalaren beharrik.